

LTD KATEEN AGERTOKI BERRIA

Egungo egoera

2010eko apirilean ilunaldi analogikoa jazo zen eta Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) arora pasa ginen.

365/2010 Errege Dekretuak Abertis behartzen du Estatuko estalduraren %96 lortzera. Horren ondorioa da, Euskal Autonomia Erkidegoan %90eko estaldura izan zuela. Hau da, gure biztaleen %10ak ez zuen Abertisen zerbitzua jasotzen, eta, beraz, ezin zuten LTDa ikusi.

Hutsune hori betetzeko, 2009an, hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, hiru Aldundiek eta EUDELek LTDak %100eko estaldura izan zezan lurraldean, eta, horretarako, 198 luzapen zentro behar izan ziren.

Une hauetan, **LTDaren fase berri** batean gaude. Espektoaren goi mailako kateak ezabatu egingo dira, izan ere, kate berriak txetartu eta daudenak berrantolatuko dira.

Horrenbestez, 2011ko apiriletik, zenbait arazo dago LDTa luzapen zentroen bitartez heltzen den hainbat udalerritan kate batzuk ikusteko, hain zuzen ere, 119 udalerrik dituzte arazoak LDTaren kate guztiak behar bezala ikusteko (I. eranskina). Une hauetan, lehen ikusten ziren kate batzuk, apirilaz geroztik, ez dira ikusten (esaterako, Teledeporte) eta lehen ikusten ez ziren beste kate batzuk, ez dira oraindik ikusten (Nitro, adibidez).

Ekintza Plana

Euskal erakunde ezberdinekin biltzea aurreikusi da, LDTaren espektroaren antolamendua modu autonomoan gauzatzeko, herritarrak ahalik eta gutxien kaltetuz eta kostu ekonomiko txikienarekin.

Era berean, **Ekintza Plan** bat gauzatzen ari da; hurrengo ekintzak hartuko lituzke kontuan:

- Udaleekiko informazio puntuala.

Garrantzitsua da Udaletan beharrezkoa den informazioa edukitzea, zuhurtasunez eta ezagutzarekin aritzeko herritarren aurrean.

- Eskualdeko eta Lurraldeko Batzarrak.

Eskualde edo lurralde mailako (oraindik definitu gabe) informazio batzarrak egitea aurreikusi da, eta, horietan, Itelazpik parte hartuko du. Gisa horretan, informazioa eman eta egon daitezkeen dudak ebatziko dira.

- KZ guneaken ikastaroak eta adibide bideoa web orrialderako.

2007an arrakasta handia izan zuten pertsona helduagoei zuzenduriko ikastaro hauek, bai eta adibide bideoa ere. Beraz, oraingo honetan ere erabilgarria izan dadila espero da.

- Garrantzitsua da Udalak jakitun izatea Itelazpik ez duela udalerriek egindako banakako jarduerak bere gain hartuko, ezta kalte-ordainik emango ere ez.

Prozesu osoaren eskema

1.- Emisioa. Telebistek esleitutako kateen bitartez igortzen dituzte euren programak.

2.- Difusioa. Abertisek bere 40 zentrotan eta Itelazpik EAeko emisio-zentroetako %100eko estaldura dauka.

3.- Harrera → 2 modalitate:

- Familia bakarreko etxebizitza : Ez da antenizaziorik behar izango, eta LDTa behar bezala ikusi ahal izango dute igortzen hasten den unetik.

- Auzokideen komunitatea: instalazio erregistroan izena emanda duen enpresa batek edo antena-jartzaile batek harrera prestatu beharko du. (Estatuko laguntza ekonomikoak aurreikusi dira, lan horiek finantzatzeko, eta, horregatik, bada, erregistroan izena emanda edukitzearen garrantzia).

4.- Sintonizazioa. Beharrezkoa izango da telebista bakoitzeko kateak berriro sintonizatzea.